

Donostia, 2016ko azaroaren 18a

IDAZKARITZA NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA ULIAKO ITSASLABARRAK DIRELA ETA

Irabazi Donostia taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Batordean azaldu genuen bezala, 2015eko azaroan interpelazio bat aurkeztu genuen Uliako itsaslabarren gainetik doan bide bati buruz. Bide horrek ez du zerikusirik Talaimendi deitzen den, Natura 2000 sarean sartuta dagoen, Donejakue Bidearen zati den eta Ingurumen Sailak onartutako bakarra den bidearekin.

2015eko azaroan galdetu genuen zer zela eta ari zen Udala bide horretan garbiketa lanak egiten, bidea jabetza pribatuko lurretatik igarotzen bada. Orduko erantzunak nolabaiteko nahasmendua sortu zuen; izan ere, bidea Parke eta Lorategien sailak garbitu zuen, Club Vasco de Camping elkarteak hala eskatuta, Ingurumen sailak bide hori onartuta ez badu ere. Hil honetan berriro hitz egin dugu gaiaz, eta atsegina hartu dugu jakitean udal zerbitzuek ez dutela bidea berriro garbituko.

Duela urtebete ohartarazi genuen bidearen arriskugarritasunaz eta edozein pertsona bide horretatik ibiltzearen arriskuaz. Gure interpelazioa guztiz oinarritua zen; izan ere, igaro den urriaren 19an, pertsona bat erreskatatu behar izan zuen Ertzaintzak helikopteroz, istripu bat izan eta bidetik jarraitu ezinik geratu eta gero. Istripu eta nahasketa gehiago ekiditeko, Batzordean proposatu genuen kartel bat jartzea arriskuaz ohartarazteko, zein Udalak erroldan sartutako bidea ez dela jakinarazteko.

Ulia mendiko Plan Bereziaren idazketari dagokionez, zinegotzi ordezkariak erantzun zuen zitekeena zela atzeratzea zalantza batzuk daudelako haren tramitazioari buruz. Zehazki, beste udal batzuekin elkarlanean (Pasaia eta Hondarribia) egin behar den. Gai horri buruz, Hirigintzako zinegotzi ordezkariak batzordean esan zuen oraindik ez dutela hitz egin Pasaiarekin Uliako Plan Bereziarekin.

Hori dela eta, hauxe da aurkezten dugun

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio jar dezala seinaleren bat Uliako itsaslabarretako bidearen arriskuaz ohartarazteko, zein Udalak erroldan sartutako bidea ez dela jakinarazteko.
2. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio egin ditzala behar diren gestio guztiak Uliako Plan Berezia, flora, fauna, itsaslabarrak eta ingurumenaren aldetik interesgarriak diren beste inguru batzuk babestekoa, lehenbailehen idazten amaitzeko.

Izpta.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia.